# BESTELAKO XEDAPENAK

## INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA

## 2285

*EBAZPENA, 2019ko azaroaren 28koa, Ingurumeneko sailburuordearena, irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuei ingurumenaren arloko boluntariotzako proiektuak gara ditzaten dirulaguntzak ematekoa.*

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2019ko irailaren 11ko Aginduak (2019ko irailaren 23ko EHAA, 180. zk.) arautzen du irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuei dirulaguntzak ematea EAEko ingurumenaren arloko boluntariotza proiektuak gara ditzaten.

2019ko irailaren 11ko Aginduan xedatutakoari jarraituz eta horretarako eratutako ebaluazio-organoak egindako txostena aldez aurretik aztertu ondoren,

EBAZTEN DUT:

1.– Dirulaguntza ematea ebazpen honen I. eranskinean zerrendatutako proiektu eta erakundeei.

2.– Dirulaguntza ukatzea ebazpen honen II. eranskinean aurkeztutako erakundeen proiektuei, adierazten diren arrazoiengatik.

3.– Dirulaguntza 2019ko irailaren 11ko Aginduaren 16. artikuluan ezarritakoari jarraituz ordainduko da, Natura Ondare eta Klima Aldaketako zuzendariak ebazpena eman ondoren.

4.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea emandako dirulaguntzen zerrenda, informazio gisa, dirulaguntzen aginduaren 15.4 artikuluan azaldutakoa beteaz.

5.– Administrazio-bidea agortzen ez duen ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza sailburuari, berori jakinarazten denetik hilabeteko epean, hala ezartzen baita Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko azaroaren 28a.

Ingurumeneko sailburuordea,
MARIA ELENA MORENO ZALDIBAR.

I. ERANSKINA

| IFZ/IFK | Erakundea | Proiektua | Onartutako aurrekontua (euro) | Emandako dirulaguntza (euro) |
|---|---|---|---|---|
| V95000998 | Federación Bosko Taldea | Komunitate Jasangarriak -11- Comunidades Sostenibles | 10.300,00 | 4.135,29 |
| G28795961 | Sociedad Española de Ornitología | Medidas para la mejora del estado de la biodiversidad en la CAPV | 7.886,40 | 7.359,80 |
| G48545610 | Asociación Zubietxe para personas en situación o riesgo de exclusión | Promoción de voluntariado ambiental en personas en situación de exclusión | 6.340,00 | 3.665,47 |
| G95149985 | Asociación ecologista solidaria Kima Berdea | Reforestando Abanto-Zierbena (Bizkaia). Activando el Movimiento asociativo | 13.720,85 | 13.720,85 |
| G20330726 | Euskal espeleologoen Alkargoa | Limpieza de la cavidad: Arraskondoko Lezia | 3.795,00 | 2.725,46 |
| G95253134 | Asociación cultural Plural Anitzak | Creando espacios verdes periurbanos en Ortuella (Bizkaia) con voluntariado ambiental | 14.312,69 | 14.312,69 |
| G95233805 | Fundación Lurgaia Fundazioa | Undabaso. El bosque que viene. | 15.635,00 | 15.000,00 |
| G95177150 | Red de semillas de Euskadi/Euskadiko hazien sarea | Tejiendo redes para la conservación y la divulgación del uso de variedades culti. | 15.000,00 | 15.000,00 |
| G78291788 | Asociación herpetológica española | Actuaciones de voluntariado ambiental para el conocimiento y la gestión de fauna | 14.966,17 | 14.966,17 |
| G48298665 | Federación Euskal Eskautak Bizkaia | Serantesera begira, Santurtziarekin bat | 4.000,00 | 2.489,10 |
| G95136115 | Asociación Ekologistak Martxan Bizkaia | Musutruk II: Voluntariado ante la crisis ambiental | 16.200,00 | 15.000,00 |
| G95455937 | Fundación de trabajadores de la siderurgia integral | Gure ingurunea zaintzen 2019-2020 | 3.248,47 | 3.071,34 |

# II. ERANSKINA

| IFZ/IFK | Erakundea | Proiektua | Arrazoia |
|---|---|---|---|
| G75076521 | Katubihotz Kaleko Katuari Lagun Elkartea | H.E.A.Proiektua Pasaian 2019-2020 | (1) |
| G95896650 | Landabasoko Ikasleen Familien Elkartea-LIFE | Programa de voluntariado ambiental 2019 | (2) |

(1) Proiektuak ez du gutxieneko puntuazioa lortu (14.2 art.).
(2) Eskabidea ez da bitarteko elektronikoen bidez aurkeztu (10.2 art.).